

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Lehenik, kutsaduraren aurka dauden boluntarioak izango lirateke gure bezeroetako batzuk, zerbitzua burutzeko beraien laguntza behar baitugu. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi beste edozein pertsonak parte hartu ez dezaketenik, guztiz aurkakoa, proiektu honetan parte hartzeko gaitasuna duen edozeinek, batez ere gazteek, itsas kutsadura murrizteko prest dagoen edozein boluntariok parte hartzeko aukera izango du. Horrek, izugarrizko arrakasta erakarriko zukeen, mugimendua bultzatuz eta hemengoa lagunduz.

Beste alde batetik, udala aipatzea ezinbestekoa da, beraiek baitira kamioia eta lokala eskainiko digutenak. Horren ondorioz, beraien iritzi eta ideiak kontuan hartuko ditugu zerbitzu hau burutzeko orduan, proiektua aurrera eramateko beraien laguntza beharrezkoa baitugu.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu, gure proiektua nagusiki itsas ertzean bizi diren pertsonen zein familiei zuzenduta dagoela, beraiek direlako kaltetuenak. Horregatik, hasiera bateko publizitatea bertara zuzenduko dugu, mugimendua ezaguna egin dadin.